

2022ko martxoaren 1eko Herriko Kontseiluaren txostena

Hor zirenak: ETCHEVERRY, DARGUY, DUHALDE, OXARANGO, SABALOUÉ andreak eta BISCAY, GASTAMBIDE, HERNANDEZ, MONGABURE, OTEIZA, BARNECHE jaunak.

Ezin etorria jakinarazia zutenak: Chantal ECHEVERTZ, Koxe BARBIER, Hervé PARACHOU, Carine PEREZ

Bilkurako idazkaria: OXARANGO Maïté

1. 2021eko administrazio kontuen eta kudeaketa-kontuen onespena

2021eko KONTU ADMINISTRATIBOA – HERRIKO ETXEA

Inbestimenduak

Gastuak	Aurreikusiak:	2 121 097,59
	Eginak:	1 829 241,16
	Egitekoak:	342 880,00
Irabaziak	Aurreikusiak:	2 121 097,59
	Eginak:	1 793 431,55
	Egitekoak:	108 000,00

Funtzionamendua

Gastuak	Aurreikusiak:	754 242,14
	Eginak:	665 329,09
	Egitekoak:	0,00
Irabaziak	Aurreikusiak:	754 242,14
	Eginak:	990 234,76
	Egitekoak:	0,00

Kontualdia hesterako emaitza

Inbestimenduak:	-35 809,61
Funtzionamendua:	324 905,67
Emaitza orokorra:	289 096,06

ZORRAREN EGOERA

2021 eta 2022ko maileguen interesen taula

Maileguak	Hastapeneko zenbatekoa	Hastapena/Bukaera	Oraino zor den kapitala	2021	2022
Trinketaren berritzea	250 000	2009/2024	53 803	17 493	17 711
2011ko inbestimendu batzuk	80 000	2011/2021	9 929	9 929	0
Apezetxearen berritzea	100 000	2011/2026	36 325	7506	7 506
Baserrialdeko eraikuntza anizkoitzak	320 000	2014/2028	148 571	28 150	27 407
Apairiren eta Gaztetxearen antolatzea	130 000	2017/2031	89 319	9 511	9 511
Apairiren eta Gaztetxearen antolatzea	120 000	2017/2031	80 000	8 000	8 000
OROTARA			417 947	80 589	70 135

LTEP atxikitze hitzarmena

Etcheverry-Dezest lursaila 8 urte	128 661	2016/2023	28 093	14 551	14 383
Elissalde lursaila 20 urte	365 089	2013/2032	145 993	15 183	15 024
Beltzategia etxea 20 urte	244 618	2017/2037	182 565	14 508	15 778
OROTARA	738 368		356 651	44 242	45 185

2021eko ADMINISTRAZIO KONTUA - HILERRIAK

<u>Inbestimenduak</u>	Operaziorik ez	
<u>Funtzionamendua</u>		
Gastuak	Aurreikusiak:	4 534,00
	Eginak:	0,00
	Egitekoak:	0,00
Irabaziak	Aurreikusiak:	4 534,00
	Eginak:	4 533,47
	Egitekoak:	0,00
<u>Kontualdia hesterako emaitza</u>		
Inbestimenduak:		0,00
Funtzionamendua:		4 533,47
Emaitza orokorra:		4 533,47

2021eko KONTU ADMINISTRATIBOA – HARRIETAKOBORDA LOTIZAMENDUA

<u>Inbestimenduak</u>		
Gastuak	Aurreikusiak:	0,00
	Eginak:	0,00
	Egitekoak:	0,00
Irabaziak	Aurreikusiak:	0,00
	Eginak:	10 000,00
	Egitekoak:	0,00
<u>Funtzionamendua</u>	Operaziorik ez	
<u>Kontualdia hesterako emaitza</u>		
Inbestimenduak:		10 000,00
Funtzionamendua:		0,00
Emaitza orokorra:		10 000,00

2021eko KONTU ADMINISTRATIBOA - LANDALUXIA LOTIZAMENDUA

Inbestimenduak

Gastuak	Aurreikusiak:	0,00
	Eginak:	0,00
	Egitekoak:	0,00
Irabaziak	Aurreikusiak:	0,00
	Eginak:	10 000,00
	Egitekoak:	0,00

Funtzionamendua

Operaziorik
ez

Kontualdiaren hesterako emaitza

Inbestimenduak:	10 000,00
Funtzionamendua:	0,00
Emaitza orokorra:	10 000,00

Xeheki esplikatu ondoan, 2021. urteko lau kontu administratiboak bozkatu dira. Jaun auzapezari quitusa eman zaio.

Kudeaketa txostena ere aho batez onartu da.

2. Arrontaeneko bide parte baten besterentzea: BARBIER jaunaren galdea

2022/01/31ko e-mailaren bidez, Aiherran bizi den Koxe BARBIERrek Herriko Kontseiluari galdegin dio Inbidia bere etxearen mugan den bide partea erostea.

Hirigintza instrukzio dossier bat ikerketan da etxe horretarako, eta bide parte hori etxearen eremuaren parte da osoki.

Auzapezak Herriko Kontseiluari bozkatzeari galdegin dio. Saltzea adostu da usaiako prozeduren arabera (neurketa dokumentua, inkesta publikoa eta Herriko Kontseiluaren deliberamendua)



3. Lursail batzuen trukatzea herriaren eta Jean-René Garra jaunaren artean

Lehengo harrobiaren antolatze proiektuaren kari, adostu genuen lursail batzuk trukatu genituela herriaren eta Garra jaunaren artean, eta bi parteak ados ziren.


Garra jaunak Herriari utzi dio kadastrako A 363 lursailean hartu beharreko 84 a 28 ca-ko azalerako lurra.

Horren truke, herriak GARRA jaunari utzi dio kadastrako A 364 lursailean hartzekoa den 94 a 22 ca-ko azalerako lurra.

Trukaketa kalte-ordainik gabe egingen da. Alabaina, herriak utzi lursaila Garra jaunak utzi lursaila baino handiagoa da, baina lursailek ber balioa dute.

Beherean atzemanen duzu parteek izenpetu duten neurketa mapa.

Auzapezak Herriko Kontseiluari baimena galdatu dio beharrezko urrats administratibo guztiak egiteko.



4. Inbestimendu gastuetarako mandatua emateko baimena 2021eko aurrekontua bozkatu artean

Lurralde Elkargoen Kode Nagusiko L. 1612-1 artikulua araber, Herriko Kontseiluak baimena emanik, auzapezak inbestimendu gastuak abiatzen eta kitatzen ahal ditu eta mandatua eman, aitzineko kontualdian ireki maileguren laurdenaren neurrian, hots, 144 226,25 €. Baimen hori beharrezkoa da Herriko Etxeak urte hastapenean inbestimendu gastu berriei buru egin behar dienean, aurrekontua bozkatu izan arte.

Gastu horiek bide obrak egiteko dira, 26 000€ gosta behar lukete (betetzekoak dira: 12 881€); 143 operazioa-
Errepideak.

Gainerako gaiak

- 2022ko inbestimendu nagusiak (Herriko Etxea, errepideak, trinketaren aitzinaldea, hangarreko mezzaninea, denen etxeko harmailak)
- A1126 lursaila: Arotcarena andereak gibelera egin du. Segidaz deliberatu behar da. A 1418 lursaila: Malégarie anderearekin bildu gara. Salmenta prezioak piztu asaldura aipatu diogu; prezioa apalduko duela hitzeman du. Segitu beharko den afera. – Aroztegui anderearen A1417 lursaila, Besterentzeko Xede Deklarazioa Herriko Etxera heldu da, hura ere kario. Lehen eztabaida baten ondotik, hitzartu dugu 3 gaiak batzordean lantzea, ondotik berriz ere Herriko Kontseiluan aipatzeko.
- Korrikan parte hartzea apirilaren 9an eta Eskualdeetako Hizkuntzen eta Hizkuntza Gutituen Europako Gutunaren izenpetzea martxoaren 11n, Itsasun.
- Lehendakari hauteskundeak iraganen dira apirilaren 10ean eta 24an, eta legebiltzarreko hauteskundeak ekainaren 12an eta 19an.
- Arberoako 4 herrien proposamena: uda honetan herri bakoitzak bi ostiralez animazioak antolatzea. Elkarrekin harremanetan jarriko gara, ea interesatuak diren.

Bilkura 22:30ean bururatu da

Auzapeza, Arño Gastambide